| 2016KO URRIAREN 26AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 26 DE OCTUBRE DE 2016. |
|---|---|
| ============================== | ============================== |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| **ALKATEORDEAK** | **TENIENTES DE ALCALDE** |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
José Luis Landa Arteche (PSE-EE (PSOE))

| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |
|---|---|

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Miguel Ibabe Botella (PP)
Susana De Cos Yañez (PP)
Paula Amieva Clemente (GUK)
Iñaki Amorrortu Martínez (GUK)
Susana Andollo González (GUK)
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)
Oier Iturralde Fernández (EH BILDU)
Maite Arraiza Aramendia (EH BILDU)

Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Nerea Guijarrubia García (EH BILDU)
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))
Santiago Sainz Robles (C'S)

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratsaldeko lauretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las dieciséis horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**196.- 2016KO IRAILAREN 28AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

**196.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 28 DE SEPTIEMBRE DE 2016.**

2016ko irailaren 28an Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onartzea.

Se aprueba por unanimidad el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 28 de septiembre de 2016.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, HEZKUNTZA,**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS,**

## GAZTERIA ETA EUSKARA

## 197.- 2016KO 3. HIRUHILEKOKO AURREKONTUAREN BURUTZAPENAREN BERRI EMATEA.

Proposamena irakurri ostean, Eduardo Andradek hitza hartu eta aurrekontua nola burutzen den ikustea garrantzitsua dela esan du, EAJ-PNVk, PSE-EEk eta EH Bilduk babestu zutena. Espedientean jasotako datuak lehen hiru hiruhilekoei buruzkoak dira, eta gobernuko taldeak kudeaketarako duen utzikeria eta gaitasun eza ikusten da. Teorian aurrekontuaren % 75 burututa egon beharko zuen, baina burutu gabe dagoen gastu sozialeko partiden datuak ematen ditu; hala, etxez etxeko laguntza zerbitzua % 55ean burututa dago, eta familientzako laguntza bereziak ez dira inolaz ere egikaritu. Gizarteratze arlorako baliabide guztietatik % 62 burutu da, etxebizitzetarako partidetan % 4 baino ez da gastatu, lurzorua erosten ez da ezer gastatu, bide publikoetan % 50, estolderia publikoan % 35, hilerrian % 55... Gastu falta kaleko errealitatean nabaritzen da, egingo zituztela hitz eman baina egin ez diren jardueren berri eman du, batzuk maiatzaren 15erako eta beste zenbait, udaleko hedabideen berrantolaketa esaterako, uztailaren 30erako egingo zela hitz eman zen, baina ez da ezer egin.

Inazio Uriartek erantzun du ez dela hasiko Andrade jaunak bere hizketaldian adierazitako zehaztasun gabezia guztiak zuzentzen. Aurrekontuaren burutzapena

## EDUCACIÓN, JUVENTUD Y EUSKERA

## 197.- DACIÓN DE CUENTA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA 3º TRIMESTRE DE 2016.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Eduardo Andrade que manifiesta que es importante ver cómo se ejecuta el presupuesto que fue apoyado por el PNV, PSE-EE y EH Bildu. Los datos que constan en el expediente se refieren a los tres primeros trimestres y se observa la desidia, abandono e incapacidad de gestión por parte del equipo de gobierno. Teóricamemte debiera de estar ejecutado el 75% del presupuesto pero da datos de diferentes partidas de gasto social en la que no está ejecutado, así el SAD está ejecutado al 55%, ayudas extraordinarias a familias no se han ejecutado en absoluto. Del total de los recursos destinados al área de integración social se ha ejecutado un 62%, en partidas para vivienda sólo se ha gastado el 4%, en adquisición de suelo no se ha gastado nada, en vías públicas el 50%, en alcantarillado público el 35%, en el cementerio 55%, etc. La falta de gasto se refleja en la realidad de la calle y da cuenta de actuaciones que no se han realizado y que prometieron realizar, algunas para el 15 de mayo y otras, como la reorganización de los medios de comunicación municipal, que se prometieron para el 30 de julio y nada se ha realizado.

Inazio Uriarte replica que no va a entrar a corregir la multitud de inexactitudes que ha manifestado el señor Andrade en su intervención. La ejecución presupuestaria es un documento

dokumentu tekniko bat da, informazio izaera du eta aurrekontuaren burutzapenaren zati handi bat biltzen duen hiruhileko bat falta da. Zenbakien atzean lanak, azterketak, erabaki politikoak eta abar daudela gogoratu du, eta behin baino gehiagotan talde guztiei garrantzitsuak iruditzen zaizkien partidei buruz galdetu dezatela esan diela, informazioa zehaztasun guztiekin eman ahal izateko. Urteko informazio guztia jasoko duen likidazioari lotu zaio, eta PP kritikatu du aurrekontuak babesten dituen alde politikoa ahazteagatik.

técnico y con carácter informativo y que falta un trimestre que concentra gran parte de la ejecución presupuestaria. Recuerda que detrás de los números hay trabajos, estudios, decisiones políticas etc, y recuerda que varias veces ha indicado a todos los grupos que pueden preguntar sobre aquellas partidas que les parezcan importantes para poderles dar una información con todos los detalles. Se remite a la liquidación que va a contemplar toda la información anual y critica al PP que se olvide de la parte política que está apoyando a los presupuestos.

Eduardo Andradek erantzun du zenbaki oso esanguratsuak direla, irail amaierakoak, eta gastu falta herritarrek nabaritzen dutela. Aplikatu den zerga igoeraren ondorioz, zenbait jarduera egingo zirela esan zen, haietako askori horretarako data jarri zitzaiela, baina ez direla bete, esaterako: ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzeko laguntzak, alokairurako, argindarrerako laguntzak… Egoera hori kritikatu egin du.

Eduardo Andrade replica que son números muy significativos y de finales de septiembre y la falta del gasto se nota por parte de la ciudadanía. Critica que de la subida de los impuestos que se ha aplicado y se dijo que se iba a dirigir a realizar diversas actuaciones a las que a muchas se les pusieron fecha no se han cumplido como son las ayudas al pago del IBI, ayudas al alquiler, iluminación, etc.

Inazio Uriartek Andrade jaunak adierazitakoa ezeztatzen duten datuak eman ditu, eta adibide modura jartzen du alokairuko laguntzen zenbaketan izandako akatsa, nola kontratatu diren bi pertsona etxebizitza programan juxtu kontrakoa esaten zuenean… Kasuz kasu aztertzeko unea ez dela uste du, eta ez dela horretarako lekua ere.

Inazio Uriarte da datos que contradicen lo manifestado por el señor Andrade poniendo por ejemplo el error que tiene en la cuantificación las ayudas al alquiler, cómo se ha contratado a dos personas en el programa de vivienda cuando manifestaba lo contrario, etc. Estima que no es el momento de ir caso por caso ni tampoco el lugar para ello.

Santiago Sainzek dio aurrekontuaren burutzapenarekin ez daudela ados, eta gogora ekarri du uztailean aurrekontuen proiektua irailean eman zedin proposatu zutela; gobernuko taldeak ez du hori bete, eta datorren astean helarazteko eskatu du. Ogasuneko zinegotziaren kudeaketa

Santiago Sainz manifiesta que no están de acuerdo con la ejecución presupustaria y recuerda que en julio plantearon que se facilitara el proyecto de presupuestos en septiembre, cuestión que no se ha cumplido por parte del equipo de gobierno y pide que se les de traslado la próxima

goretsi du, zergen karietara, ezen aurtengo ekitaldia amaitu eta hiru hilabetera, aurreikusitakoak betetzeraino ehuneko 3.6 adinakoa mengoa du, areago aurtengoan zergei gora eragin izan bazaie. Ekonomia jardueren gaineko zergan diru bilketa hobetu zitekeela adierazi du aurreko osoko bilkuran proposatu zituzten pizgarriak onartu izan balira.

semana. Aplaude la gestión del concejal de Hacienda en lo referido a los impuestos, ya que, a tan solo 3 meses de concluir el ejercicio se encuentra a un 3.6% de cumplir sus previsiones, recordando además que este ejercicio se han subido los impuestos. Manifiesta que en el impuesto de Actividades Económicas se podía mejorar su recaudación si se hubieran admitido incentivos como plantearon en el Pleno anterior.

Eduardo Andradek uste du osoko bilkura era honetako eztabaidetarako toki egokia dela. Burutzapen eza aipatu du berriz, eta gogorarazi du hitz hauek esaten dituela iaz gertatu zena berriz gerta ez dadin: orduan ekitaldia 50 milioiko geldikinekin amaitu zen. Egoera hori gobernuko taldeak gastua kudeatzeko orduan erakutsitako gaitasun ezari egozten dio, diru sarreretan izan ez den egoera, urtero geldikinak sortzen baitira. Amaitzeko, aurrekontuan aurreikusitakoa ez burutzea herritarren kontra doala esan du.

Eduardo Andrade cree que el Pleno es el lugar adecuado para este tipo de debates. Insiste en la inejecución y recuerda que esta intervención la realiza para intentar que no suceda como el año pasado que finalizó el ejercicio con 50 millones de remanentes. Esta situación la atribuye a la incapacidad de gestión en el gasto del equipo de gobierno, cuestión que no se da en el ingreso ya que anualmente se generan remanentes. Finaliza manifestando que no ejecutar lo previsto en el presupuesto va en perjuicio de los vecinos.

Inazio Uriartek aipatu du osoko bilkura eztabaidatzeko tokia dela, baina zenbaki asko direla eta Eduardo Andraderen adierazpenetan faltsukeria asko dagoela azpimarratu du. Santiago Sainzi esan dio hirugarren hiruhilekoan zerga asko likidatuta daudela jadanik, eta hortik datorrela burutzapen maila handi hori. Amaitzeko, likidazioa aurrekontuaren burutzapena ondoen adierazten duen dokumentua dela esan du.

Inazio Uriarte indica que el Pleno sí es sitio para discutir pero se trata de mucho números e insiste en que en las manifestaciones de Eduardo Andrade hay muchas falsedades. A Santiago Sainz le manifiesta que en el tercer trimestre muchos impuestos están ya liquidados y por eso su alto grado de ejecución. Finaliza indicando que la liquidación es el documento que mejor refleja la ejecución presupuestaria.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

2016eko 3. hiruhilekoari dagokion Aurrekonturen Exekuzio-egoerak jakitun egon, zeinari buruzko dokumentazioa aipaturiko espedientean jasota dagoen.

Quedaron enterados de los Estados de Ejecución Presupuestaria correspondientes al 3º trimestre del ejercicio 2016 cuya documentación consta en el expediente de referencia.

**198.- AURREKONTUAREN ALDAKETAK FINANTZATZEKO ASMOZ 2015KO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREKIN LORTUTAKO ALTXORTEGIKO GELDIKINA 2016KO EGOKI EKITALDEAN GASTU OROKORRETARAKO ERABILTZEA DELA ETA, FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN BEHIN-BETIKO 16/2016 ZENBAKIDUN TXOSTENAREN BERRI EMATEA.**

**198.- DACIÓN DE CUENTA DEL INFORME 16/2016 DE SOSTENIBILIDAD FINANCIERA EN RELACIÓN CON LA UTILIZACIÓN, DURANTE EL CORRESPONDIENTE PERIODO DEL EJERCICIO 2016, DEL REMANENTE DE TESORERÍA PARA GASTOS GENERALES OBTENIDO EN LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL DE 2015 PARA FINANCIAR MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

1.- Udaleko Kontu-hartzailetzak finantza iraunkortasunari buruz egindako urriaren 14ko 16/2016 txostenaren edukiaren jakitun egon diruzaintzako geldikina erabiltzeari dagokionez, 2016ean (lehenengo, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan), aurrekontuko aldaketak finantzatzeko.

1º.- Quedaron enterados del contenido del informe de la Intervención Municipal Nº 16/2016, de 14 de octubre, sobre sostenibilidad financiera en relación con la utilización del remanente de tesorería para financiar modificaciones presupuestarias durante el 2016 (primer, segundo y tercer trimestre).

2.- 16/2016 txosten hori Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Sailari igortzea, osoko bilkuraren akta eta euskarri izan daitekeen gainerako dokumentazioarekin batera.

2º.- Remitir dicho informe Nº 16/2016, junto al acta de la sesión del Pleno y demás documentación que sirva de soporte, al Departamento de Presidencia de la Diputación Foral de Bizkaia.

**199.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: AURREKONTUA GEHIGARRIZKO KREDITUZ**

**199.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN**

**BALIATUTA ALDARAZI.**

Proposamena irakurri ostean, Eduardo Andradek hartu du hitza proposamen honetan osoko bilkurari aurrekontuan egindako aldaketen berri ematen zaiola adierazteko, alkateak onartutako kreditu gehigarrien bidez egindakoak; horretarako, dirua geldikinetatik atzera eskuratu eta egokia iruditzen zaionerako bideratzen du osoko bilkuratik pasa beharrik gabe, eta hori egin daiteke zenbait taldek jardunbide hori egiteko aukera eman dutelako aurrekontua onartuta. Proposamenak aipatutako kreditu gehigarriei dagokienez, bat Kultur Etxeari buruzkoa dela esan du, ez zutena babestuko kudeaketa eskas baten ondorioa baita baina, aldiz, Portu Zaharrari eta Ingurumen Aretoari buruzkoak babestuko zituztela, baita piraguismoko erabiltzaileentzako aldagelak ere.

Enrique Pradak adierazi duenez, PPk esan duen moduan, osoko bilkuraren babesa izango zuten kreditu aldaketa batzuk daude. Portu Zaharraren birgaitzea aztertzeko partidak erakusten du borondate politikoa dagoenean jarduerak ez direla atzeratzen.

Inazio Uriartek erantzun du Alkatetzaren kreditu gehigarriak hainbat kasutan gaiak arintzeko erabiltzen direla osoko bilkuraren zain egon beharrik gabe; izan ere, ziur dago alkateak egindako kreditu gehigarri askok osoko bilkuraren babesa izango zutela, beharrezko jarduerak baitira.

Enrique Pradak adierazi du birgaitze integratuko areako azterketaren zain

**PRESUPUESTARIA MEDIANTE CRÉDITO ADICIONAL.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Eduardo Andrade para manifestar que en esta propuesta se informa al Pleno de modificaciones presupuestarias que se realizan mediante créditos adicionales que aprueba el Alcalde, para lo cual retrae dinero de los remanentes y destinar a lo que le parece sin tener que pasarlo por el Pleno, y eso es posible porque algunos grupos han posibilitado esta práctica con la aprobación del presupuesto. Sobre los créditos adicionales a los que se refiere la propuesta, indica que uno se refiere a la Kultur Etxea, que no apoyarían porque se deriva de una mala gestión, y sin embargo hubieran aprobado los relativos al Puerto Viejo y al Aula Medioambiental y también los vestuarios para los usuarios del piraguismo.

Enrique Prada manifiesta que, tal y como ha dicho el PP, hay modificaciones de crédito que hubieran gozado del apoyo del Pleno. La partida destinada al estudio de rehabilitación del Puerto Viejo demuestra que cuando hay voluntad política no se demoran las actuaciones.

Inazio Uriarte replica que los créditos adicionales de Alcaldía se utilizan en muchos casos para agilizar las cuestiones sin tener que esperar al Pleno porque esta convencido de que muchos de los créditos adicionales que se realizan por el Alcalde gozarían del apoyo plenario porque son actuaciones necesarias.

Enrique Prada manifiesta que el estudio de ARI lleva esperando desde febrero

2014ko otsailetik dagoela eta, beraz, premiaren argudioan ez duela sinesten.

Eduardo Andradek ahalmen hori alkateari kentzeko beharra azpimarratu du gai horiek guztiak osoko bilkuran eztabaidatu daitezen, eta esperientziak erakusten du alkateak ahalmen hori urtero ahal duen guztia baliatzen duela.

Enrique Pradak amaitzeko esan du bat ez datozen kudeatzeko era bat aztertzen dela, egungo aurrekontutik ondorioztatzen dela, eta aitortu du jarduera batzuek osoko bilkuraren babesa jasoko zutela, baina beste batzuk ez.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

Kreditu gehigarrien bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

3215/2016 zenbakidun Dekretua 19.800,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2016/50. Ingurumen ikasgelaren zerbitzua 2016ko urritik abendura arte.

3511/2016 zenbakidun Dekretua 161.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2016/51. Getxo Kirolak. Piraguismoko aldagelak eta igerilekuak garbitzeko robota.

3939/2016 zenbakidun Dekretua 102.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2016/52. Kultur Etxeko aurrekontuan jasota ez dauden zenbait ekintza.

de 2014 por lo que no cree en el argumento de la urgencia.

Eduardo Andrade insiste en la necesidad de retirar esta facultad al Alcalde para que se debatan todas estas cuestiones en el Pleno y la experiencia demuestra que el Alcalde utiliza esa facultad al máximo todos los años.

Enrique Prada concluye indicando que lo que se trata es una forma de gestionar que no comparten y que se deriva del actual presupuesto y reconoce que hay actuaciones que gozarían del apoyo del Pleno y otras no.

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante crédito adicional:

Decreto nº 3215//2016 por un importe de 19.800,00 euros. Crédito adicional 2016/50. Servicio de aula ambiental de octubre a diciembre de 2016.

Decreto nº 3511/2016 por un importe de 161.000,00 euros. Crédito adicional 2016/51. Getxo Kirolak. Vestuarios piragüismo y robot limpieza de piscinas.

Decreto nº 3939/2016 por un importe de 102.000,00 euros. Crédito adicional 2016/52. Actividades varias no recogidas en el presupuesto – Kultur Etxea.

3990/2016 zenbakidun Dekretua 55.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2016/53. 2.kapituloko gastuak.

Decreto nº 3990/2016 por un importe de 55.000,00 euros. Crédito adicional 2016/53. Gastos capítulo 2.

4141/2016 zenbakidun Dekretua 21.780,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2016/55. Portu Zaharra eraberritzeko azterketak.

Decreto nº 4141/2016 por un importe de 21.780,00 euros. Crédito adicional 2016/55. Estudios para la rehabilitación del Puerto Viejo.

**200.- BI DEKRETUREN BERRI EMATEA: KREDITUA PRESTATZEAREN BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOAK.**

**200.- DACIÓN DE CUENTA DE DOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Kreditua prestatzearen bidez egindako aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante habilitación de crédito:

3945/2016 zenbakidun Dekretua 21.150,00 euroko zenbatekoarekin. 2016/07 kreditua gaitzea. 2016-09-25eko hauteskundeak.

Decreto nº 3945/2016 por un importe de 21.150,00 euros. Habilitación de crédito 2016/07. Elecciones 25/09/2016.

4071/2016 zenbakidun Dekretua 12.850,20 euroko zenbatekoarekin. 2016/08 kreditu gaitzea. Sorospideko betearazpena, Euskar Hoteles 2000, SL behartutakoaren kontura, Getxoko Aingeruaren etorbideko 19. lur-zatian egindako eraikuntza handia eraisteko.

Decreto nº 4071/2016 por un importe de 12.850,20 euros. Habilitación de crédito 2016/08. Ejecución subsidiaria, con cargo al obligado Euskar Hoteles 2000, S.L., para la demolición de la construcción de grandes dimensiones realizada en la parcela del nº 19 de la Avenida del Angel de Getxo.

**201.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA, TRANSFERENTZIEN BIDEZ AURREKONTUAK ALDATZEARI**

**201.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL**

**BURUZKOAK.**

Proposamena irakurri ostean, Eduardo Andradek hartu du hitza esateko kasu honetan alkateak, aurrekontuan EH Bilduk emandako babesari esker, partida batetik bestera dirua nahi duen moduan mugitu dezakeela eta ahalmen horiek baliatuz bideratzen duela elkarteetarako dirua, 8.600 euro, publizitaterako, eta beste 25.000 euro beste partida batzuetatik bideratzen direla Getxoberrirako.

Inazio Uriartek informazio batzordeetan inork galdetu ez duen kudeaketako gaiei buruzko transferentzien arrazoia azaldu du. 8.600 euroko partida euskararen partida berean mugitzen da. Uste du PPk ez duela batzordean galdetzen gero osoko bilkuran iruditzen zaion guztia esan ahal izateko inolako zehaztasunik gabe, eta Eduardo Andradek esandakoa ez dela egia dio.

Eduardo Andradek azpimarratu du esan duena egia dela eta hala adierazten dela proposamenean, hau da, dirua partida batetik (aurrekontuan helburu baterako jasotzen dena) beste batera nola pasatzen den. Aurrekontua etengabe aldatzea kritikatu du, eta bere hitzekin jokabide hori salatu nahi duela dio, ez zenbatekoak.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

Transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakitun egon:

**USO DE TRANSFERENCIAS.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Eduardo Andrade para manifestar que en este caso el Alcalde, gracias al apoyo de EH Bildu en el presupusto, puede mover dinero de una partida a otra a su antojo y con estas facultades deriva dinero destinado a asociaciones, por importe de 8.600 euros, a publicidad, y otros 25.000 se derivan de otras partidas para el Getxoberri.

Inazio Uriarte explica la razón de las transferencias que se refieren a temas de gestión sobre las que en las comisiones informativas nadie ha preguntado. La partida de 8.600 euros se mueve dentro de la misma partida de euskera. Cree que el PP no pregunta en comisión para luego en el Pleno poder decir lo que les parezca sin ningún rigor e indica que las manifestaciones de Eduardo Andrade no recogen la verdad.

Eduardo Andrade insiste en que lo dicho es cierto y así se refleja en la propuesta que recoge como se traslada dinero de una partida, que en el presupuesto se contempla para un destino, a otra partida diferente. Critica que se altere el presupuesto de manera contínua y lo que pretende con su intervención es denunciar esta actitud no las cuantías.

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

3902/2016 zenbakidun Dekretua 10.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2016/10 kreditu-transferentzia. Wanted 2016.

Decreto nº 3902/2016 por un importe de 10.000,00 euros. Transferencia de credito 2016/10. Wanted 2016.

3903/2016 zenbakidun Dekretua 8.680,00 euroko zenbatekoarekin. 2016/11 kreditu-transferentzia. Getxoko ESEP, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana garatzeak dakartzan.

Decreto nº 3903/2016 por un importe de 8.680,00 euros. Transferencia de credito 2016/11. Para las necesidades que conlleva el desarrollo del Plan de Acciones para la Promoción del Euskera.

3919/2016 zenbakidun Dekretua 25.100,00 euroko zenbatekoarekin. 2016/12 kreditu-transferentzia. Getxoberri inprimatzeko luzapena.

Decreto nº 3919/2016 por un importe de 25.100,00 euros. Transferencia de credito 2016/12. Prórroga impresión Getxoberri.

**202.- GETXOKO KULTUR ETXEAREN 1. KAPITULUARI GEHIKUNTZA EGITEKO KREDITU OSAGARRIA ONESTEA.**

**202.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA EL INCREMENTO DEL CAPÍTULO 1 DEL AULA DE CULTURA.**

Proposamena irakurri ostean, Eduardo Andradek hitza hartu eta puntu horretan zuzen jokatzen dela esan du proposamena osoko bilkurara aurkeztean. Gaiari dagokionez zehazki, proposamena ez dutela babestuko dio bere iritziz Kultur Etxeari, 6 milioi eurotik gorako aurrekontuarekin, diru gehiago ez zaiola eman behar uste baitute, haren kudeaketan dirua barra-barra gastatu baita.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Eduardo Andrade que manifiesta que en este punto se actúa correctamente al presentar la propuesta al Pleno. Sobre el tema en concreto manifiesta que no van a apoyar la propuesta porque en su opinión al Aula de Cultura, con un presupuesto de más de 6 millones de euros, creen que no es necesario que se le dote de más recursos económicos ya que en su gestión derrocha dinero.

Proposamena bozkatu ostean, honako emaitza hau atera da: Aldeko 11 boto (EAJ-PNV, PSE-EE); kontrako 5 boto (PP) eta 9 abstentzio (GUK, EH Bildu eta Ciudadanos).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 5 votos en contra, PP; 9 abstenciones, GUK, EH Bildu, Ciudadanos.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y

erabaki da:

Onestea, gehigarrizko kreditua emateko espedientea, zk. 2016/54 zenbatekoa 48.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Euskara, por mayoría se acordó:

Aprobar el Expediente número 2016/54 de Crédito Adicional, por importe de 48.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

## Gastuak / Gastos:

| Partida | **Izendapena** Denominación | **Zenbatekoa** Importe en € |
|---|---|---|
| 003/3340/4310001 | Erakunde autonomoei (Kulturaren sustapena) Organismos Autónomos (Promoción cultural) | 48.000,00 |
| Guztira Total | | 48.000,00 |

## Finantzaketa / Financiación

| | |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales | 48.000,00 |

**<u>203.- GEHIGARRIZKO KREDITUA EMATEA ONESTEA: ALGORTA ETORBIDEA TELLETXE ETA TORRENE KALEEN BITARTEAN URBANIZATZEKO LANAK.</u>**

Proposamena irakurri ostean, Eduardo Andradek hitza hartu du proposamena gobernuko taldeak PPrekin lortutako akordio baten emaitza dela adierazteko, Algortan kalea eta zirkulazioa antolatzeari buruzkoa dela eta, beraz, babestu egingo dutela.

Joseba Arregik hitza hartu du akordioa metodo gisa azpimarratzeko, eta gustura agertu da legealdi honetan PP

**<u>203.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LA URBANIZACIÓN DE LA AVDA. DE ALGORTA, ENTRE LAS CALLES TELLETXE Y TORRENE.</u>**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Eduardo Andrade para indicar que la propuesta deriva de un acuerdo del equipo de gobierno con el PP relativo a la ordenación de la calle y tráfico en Algorta, por lo que van a apoyar.

Joseba Arregi interviene subrayando el acuerdo como método y se alegra que en esta legislatura el PP esté dispuesto a

akordioak lortzeko prest dagoelako. Aurreikusitako jarduerek Algortako zirkulazioan eta aparkalekuetan eragin handia dute. Legealdi honetan gobernuko taldeak talde guztiekin itunak egin dituela esan du, eta kudeaketari dagokionez, muga batzuk daudela, eta muga horiek aurrekontuak benetan urtekoak ez izatea eragiten dutela.

llegar a acuerdos. Las actuaciones previstas inciden de manera significativa en el tráfico y aparcamientos en Algorta. Manifiesta que en esta legislatura el equipo de gobierno ha pactado con todos los grupos y respecto a la gestión hay limitaciones que hacen que los presupuestos realmente no son anuales.

Enrique Pradak dio kreditu bat proposatzen dela Algortako zirkulazioaren eta aparkalekuaren gainean gobernuko taldearen eta PPren artean akordioa gauzatzeko. Akordioaz gutxi dakitela aipatu du, baina aurreikusten diren proiektuetan auzotarren partaidetzarik ez dagoela badakite; horrek harrituta utzi ditu kontuan hartzen badugu behintzat PPk eta gobernuko taldeak partaidetzari buruz zer esan ohi izan duten, nahiz eta gero egiten dutena oso bestelakoa den. Aldeko botorik ezin dute eman akordioa nolakoa den ez baitakite zehatz-mehatz nahiz eta proposamenean urbanizazioko hobekuntza batzuk jasotzen diren; partaidetzarik eta gardentasunik ez dagoela irizten dute, ordea.

Enrique Prada interviene indicando que se plantea un crédito para llevar a cabo el acuerdo entre el equipo de gobierno y el PP sobre tráfico y aparcamiento en Algorta. Manifiesta que conocen poco del acuerdo pero saben que no ha habido participación vecinal en los proyectos que se contemplan, lo que les sorprende teniendo en cuenta lo que el PP y el equipo de gobierno vienen declarando acerca de la participación, aunque es muy diferente lo que luego practican. No pueden votar a favor porque desconocen el acuerdo en todos sus términos aunque la propuesta aporte mejoras urbanísticas, pero estiman que no hay ni participación ni transparencia.

Nerea Guijarrubiak salatu du hiri antolamenduko plan orokorraren berrikuspena atzeratzen ari dela eta itunen bidez plangintza aldatzen ari dela; hiri antolamenduko plan orokor berri bat onartzea dela benetan orain beharrezkoena dio, udalerrirako oinarrizkoa dela. Oinezkoa lehenesten duen proposamen zehatzari dagokionez, ados daude, eta aparkalekuari dagokionez, zonalde horretan falta dela badakite eta San Nikolaseko plazan dagoen aparkalekua modu publikoan kudeatu behar dela uste dute; beraz, azaldutako

Nerea Guijarrubia inicia su intervención con la denuncia de que se está retrasando la revisión del PGOU y a través de pactos se está modificando el planeamiento, cuando lo más necesario es la aprobación de un nuevo PGOU que es básico para el municipio. Respecto a la propuesta concreta en la que se prima al peatón les parece bien y respecto al aparcamiento conocen la falta del mismo en la zona y creen que hay que gestionar de forma pública el parking existente en la plaza de San Nikolas, por lo que, en base a lo expuesto se van a abstener. Indica a

guztiagatik, abstenitu egingo dira. Eduardo Andraderi adierazi dio kasu honetan ere dirua partida batetik bestera pasa dela, baina ez daudela horren aurka.

Eduardo Andrade, que en este caso también se trasalda dinero de una partida a otra pero no se oponen.

Eduardo Andradek erantzun du kasu honetan osoko bilkurak esleituko dituela baliabideak, ez alkateak. Gobernuko taldearekin bat dator Algortako zirkulazioaren eta oinezkoen arazoa konpontzeko akordioak duen garrantziarekin. Gai horretan auzotarren iritzia ez dagoela jaso beharrik uste du, aspalditik datorren arazoa baita, eta auzotarren iritziaren berri badutela udalean urte askoan lanean diharduten talde guztiek.

Eduardo Andrade replica que en este caso es el Pleno el que va a asignar los recursos y no el Alcalde. Comparte con el equipo de gobierno la importancia del acuerdo para resolver el problema del tráfico y de los peatones en Algorta. Estima que no hace falta consultar a los vecinos sobre este tema ya que el problema viene de hace años y la opinión vecinal es conocida por todos los grupos que llevan años en el ayuntamiento.

Joseba Arregik argitu du onartzen ari dena kreditua gaitzea dela, eta ondoren proposatutako proiektu zehatzak adjudikatu eta egin beharko direla. EAJ-PNV urte asko daramatzala auzotarren iritzia entzuten esan du, entzute horretan oinarritzen baita bere hauteskunde programa, baita ondorengo gobernuko itunak ere. Proiektu honetan herritarrek parte hartzeko prozesu bat ere izango da, hori egitea egokia denean.

Joseba Arregi aclara que lo que se está aprobando es habilitar crédito que posteriormente habrá que adjudicar y realizar los proyectos concretos que se plantean. Manifiesta que el PNV lleva años escuchando a los vecinos ya que en esa escucha se basa su programa electoral y sus posteriores pactos de gobierno. En este proyecto habrá también un proceso de participación ciudadana cuando corresponda.

Enrique Pradak partaidetza eta gardentasun falta izan dela azpimarratu du, baina proiektuak alde onak dituela, eta horregatik abstenitu egingo dela.

Enrique Prada insiste en la falta de participación y transparencia aunque reconoce que el proyecto tiene aspectos positivos, lo que justifica su abstención.

Proposamena bozkatu ostean, honako emaitza hau atera da: aldeko 16 boto (EAJ-PNV, PP, PSE-EE) eta 9 abstentzio (GUK, EH Bildu eta Ciudadanos).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 16 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE y 9 abstenciones, GUK, EH Bildu, Ciudadanos.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica,

proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Onestea, gehigarrizko kreditua emateko espedientea, zk. 2016/57 zenbatekoa 741.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Aprobar el Expediente número 2016/57 de Crédito Adicional, por importe de 741.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

## Gastuak / Gastos:

| Partida | **Izendapena**<br>Denominación | **Zenbatekoa**<br>Importe en € |
|---|---|---|
| 004/1530/6010000 | Azpiegitura eta urbanizazioa (Bide publikoak)<br>Infraestructura y urbanización (Vías públicas) | 741.000,00 |
| Guztira<br>Total | | 741.000,00 |

## Finantzaketa / Financiación

| | |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako<br>Remanente de tesorería para gastos generales | 741.000,00 |

**<u>204.- HIRI LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA-ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA, 2017 URTEA.</u>**

Proposamena irakurri ostean, Inazio Uriartek hitza hartu du esateko proposatzen dena hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga egokitzea dela legezkotasun nahiz aukera arrazoiengatik, 2017. urterako ezarritako katastroko balio berrietatik ondorioztatutakoak. Proposamenak bi

**<u>204.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO QUE GRAVA EL INCREMENTO DE VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA. AÑO 2017</u>**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Inazio Uriarte indicando que lo que se plantea es la adecuación del Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana tanto por razones de legalidad como de oportunidad, derivadas de la implantación de los nuevos valores

irizpide politikori erantzuten die: alde batetik, diru bilketari eustea hura handitu gabe, eta horregatik definitzen da % 5,5eko tasa, eta bestetik, hobari fiskal garrantzitsu batzuei eragitea.

catastrales para el año 2017. La propuesta responde a dos criterios políticos que son mantener la recaudación sin incremtentar la misma, y por ello se define un tipo de 5,5%, e incidir también en algunas bonificaciones fiscales importantes.

Eduardo Andradek aipatu du proposamena gobernuko taldeak EH Bildurekin aurrez lortutako akordio batetik datorrela, handik sortu dela "*katastrazoa*" eta aldaketa lege betebeharretatik sortu dela. Proposamenaren zati handiena teknikoa dela onartu du, baina eduki politiko bat ere badagoela ezarritako karga tasa adieraztean. Galdetu du presio fiskala zergatik ez den murrizten zerga hori txikituz, urtero sortzen diren geldikinak kontuan hartuz eta, horregatik, tasa % 4ra jaisteko proposatzen dute; hala, "*katastrazoaren*" efektua apur bat arinduko luke.

Eduardo Andrade indica que la propuesta viene de un acuerdo previo del equipo de gobierno con EH Bildu del que deriva el "*catastrazo*" y el cambio deriva de obligaciones legales. Reconoce que la propuesta en gran parte es técnica pero existe un contenido político al indicar el tipo de gravamen que se implanta. Pregunta por qué no se reduce la presión fiscal rebajando este impuesto, teniendo en cuenta los remantentes que anualmente se generan y, por ello, plantean bajar el tipo al 4%, que aliviaría en parte el efecto del "*catastrazo*".

Santiago Sainzek dio aurkeztu dituzten zuzenketek Getxoko herritarren alde egitea bilatzen dutela, eta udal finantzaketari dagokionez, arduratsuak izatea ere. Monumentu balioko multzoetan obretarako hobariak areagotzea proposatzen dute, ezkontideen eta izatezko bikoteen artean heriotzaren ondoriozko eskualdatzeen eta ohiko etxebizitzaren tratamendua hobetzea; eta tasa % 5era jaisteko proposatzen dute Getxoko presio fiskala kontuan hartuz.

Santiago Sainz manifiesta que las enmiendas que han presentado buscan favorecer a la ciudadanía de Getxo y ser responsables también respecto a la financiación municipal. Plantean incrementar las bonificaciones dirigidas a obras en conjuntos de valor monumental, así como mejorar el tratamiento de transmisiones por fallecimiento y vivienda habitual entre cónyuges y parejas de hecho y plantean rebajar el tipo al 5% teniendo en cuenta la presión fiscal de Getxo.

Inazio Uriartek erantzun duenez, proposamenak diru bilketari eutsi nahi dio eta txosten teknikoak hasiera batean % 5,7ko tasa proposatzen zuen, katastroko balio berriak aintzat hartuz; azkenenean, proposamenean % 5,5 finkatu da, hau da, azken diru bilketa % 3,5 jaitsiko dela uste da. PPk tasa % 30

Inazio Uriarte replica que la propuesta busca mantener la recaudación y el informe técnico planteaba inicialmente, teniendo en cuenta los nuevos valores catastrales, un tipo del 5,7%, fijándose finalmente en la propuesta un 5,5%, lo que previsiblemente va a suponer una rebaja de la recudación final del 3,5%.

jaistea proposatzen du, Ciudadanosek % 12,2, eta gehiegizkoa iruditzen zaio. Ciudadanosen bi zuzenketei dagokienez, gobernuko taldeak jasotako hobarietan eragiten dute, eta proposamenean jasotako hobekuntzekin nahikoa dela uste du. Aurrekontuko neurriek gutxiago biltzea ekarriko dute, baina gutxiago biltze hori onargarria dela uste du.

La rebaja que plantea del tipo el PP es del 30% y la de Ciudadanos del 12,2%, lo que le parece excesivo. En relación a las dos enmiendas de Ciudadanos, éstas inciden en bonificaciones que recoge el equipo de gobierno y estima que con las mejoras que se proponen en la propuesta es suficiente. Las medidas presupuestarias van a suponer recaudar menos pero esa menor recaudación estima que es asumible.

Paula Amievak dio GUK taldeak uste duela gobernuko taldeak udal talde politikoren batekin itun bat lortu duela gai horren gainean. Proposamenaren lehen berria urriaren 14an izan zutela kexatu da, egun gutxi izan direla eta gobernuko taldeak bere taldearekin ez duela ezertarako aintzat hartu. Bildutako dirua zertarako erabiliko den ere ez da esan ez baita aurrekontua urriaren 15erako aurkeztu, foru araudiak proiektua aurkezteko jarritako data. Gobernuko taldea, azken 5 urteotan bezala, data horiek bete gabe jarraitzen du, egiten duten gauza bakarra behar besteko epeak arautzea da gutxiengoak indartu ahal izateko. Errealitate horiekin ezin dute proposamena babestu; izan ere, ez dakite bildutako dirua zertan gastatuko den, eta adierazi dute aurrekontuko proiektuaren berririk ez badute ordenantza behin betiko onartu baino lehen, haren aurka egingo dutela.

Paula Amieva indica que GUK supone que el equipo de gobierno ha llegado a un pacto sobre esta cuestión con algún grupo político municipal. Se queja que la primera noticia de la propuesta la tuvieron el 14 de octubre y ha habido pocos días y que el equipo de gobierno no ha contado en absoluto con su grupo. Nada se dice tampoco a qué se va a destinar la recaudación ya que no se ha presentado el presupuesto para el 15 de octubre, que es la fecha que la normativa foral indica para la presentación del proyecto. El equipo de gobierno, como en los últimos 5 años, lleva incumpliendo estas fechas que lo único que hacen es regular plazos suficientes para poder reforzar a las minorías. Con esas realidades no pueden apoyar la propuesta ya que desconocen fundamentalmente en qué se va a gastar el dinero recaudado, indicando que si no conocen el proyecto de presupuesto antes de la aprobación definitiva de la ordenanza se opondrán a la misma.

Ibon Rodriguezek aipatu du PPk gezurretan oinarritutako hizketaldia egin duela eta, proposamen honen gainean akordio bat dagoela onartu arren, gezurra dela katastroari buruzko akordio bat zegoela; izan ere, hura Bizkaiko Foru Aldundiak eguneratzen du, ez udalak, eta katastroko balioak

Ibon Rodríguez manifiesta que el PP ha realizado una intervención basada en mentiras y sobre esta propuesta reconce que hay acuerdo pero es mentira que hubiera acuerdo sobre el catastro, ya que la actualización del mismo corresponde realizar a la Diputación Foral de Bizkaia y no al ayuntamiento,

eguneratzeko egindako prozesua lotsagarria iruditu zaiola esan du. Aitortu du balio horiek gero ondorioak dituela udal zergetan, eta ondasun higiezinen gaineko zergari dagokionez, eguneratutako balioak zituztenek gutxiago ordainduko dutela eta balio zaharkituak dituztenek gehiago ordainduko dutela, eta horrek bere justizia puntua duela. Gogora ekarri du Getxoko Udalak ondasun higiezinen gaineko zergaren tasa jaitsi egin zuela katastroko oinarrien igoeraren ondorioa doitzeko. Presio fiskalari dagokionez, Madrilgo PP haren zati handi baten erantzule dela uste du alderdi horrek BEZan egindako erregulazioekin, murrizketekin eta abarrekin. Proposamena aukera politiko bat da eta, horregatik, zuzenketen aurka egingo dute; proposamenean abstenitu egingo dira, ez baita EH Bilduren proposamen bat, eta haren eduki osoarekin ez datoz bat. Zerga horrek bere etxebizitzak saltzen dituztenei eragiten diela gogorarazi du, ez diola etxebizitzen alokairuari laguntzen eta ez duela espekulazioa gelditzen.

indicando que el proceso que se ha realizado para la actualización de los valores catastrales le ha parecido lamentable. Reconoce que después esos valores tienen efectos en impuestos municipales y respecto al IBI aquellos que tenían valores actualizados pagarán menos y aquellos que tienen valores desfasados pagarán más, lo cual tiene su punto de justicia. Recuerda que el Ayuntamiento de Getxo bajo el tipo del IBI para ajustar el efecto de la subida de las bases catastrales. En relación a la presión fiscal estima que el PP de Madrid es responsable de gran parte de la misma a través de sus regulaciones del IVA recortes, etc. La propuesta es una opción política y por ello votarán en contra de las enmiendas y se abstendrán en la propuesta porque no es una propuesta de EH Bildu y no comparten totalmente su contenido. Recuerda que este impuesto afecta a los que venden sus viviendas y no favorece ni el alquiler de viviendas ni frena la especulación.

Santiago Sainzek EH Bilduri esan dio merkatua mugitzeak ez duela esan nahi espekulazioa dagoenik, eta gobernuko taldeari aipatu dio proposamena esperimentu baten moduan aurkezten duela, baina azkenean diru gehiago biltzea ekarriko duela, eta harekin bat ez egotean proposatu dituztela zuzenketak. Monumentu intereseko guneetako etxebizitzan inbertsio hobaria handitzeari dagokionez, Portu Zaharrean adibidez, dagokion foru arauak ematen dituen aukeren barnean sartzen da. Sistematikoki zuzenketak baztertzea kritikatu du, negoziatzeko aukerarik izan gabe.

Santiago Sainz indica a EH Bildu que el mercado se mueva no significa necesariamente que exista especulación y al equipo de gobierno le indica que plantea la propuesta como un experimiento pero que al final va a suponer más recaudación y no estando de acuerdo con la misma han planteado las enmiendas. Respecto a la relativa a incrementar la bonificación en inversión en vivienda en zonas de interes monumental como la del Puerto Viejo, encaja dentro de las posibilidades que la Norma Foral correspondiente otorga. Critica que de manera sistemática se rechacen las enmiendas sin plantear una mínima negociación.

Eduardo Andradek dio ondo iruditzen zaiola presio fiskala handitzea ez bilatzea, baina txosten teknikoek diote proposamenarekin eutsi egingo zaiola eta ez du uste jaitsi egingo denik. Zergak herritar askori eragiten die eta ez aberatsei bakarrik, eta dirua biltzeko eta ez gastatzeko esperientzia ikusirik, tasak jaistea zentzuzkoa izango zen presio fiskala eta "*katastrazoaren*" efektuak arintze aldera, gobernuko taldeak eta EH Bilduk erabakitako Getxorako ondasuna higiezinen gaineko zerga zehaztean.

Eduardo Andrade manifiesta que le parece bien que no se busque aumentar la presión fiscal pero los informes técnicos indican que con la propuesta se va a mantener y no cree que se vaya a reducir. El impuesto afecta a muchos vecinos y vecinas y no solo a los ricos y ante la experiencia de recaudar y no gastar sería razonable bajar los tipos para aliviar la presión fiscal y los efectos del "*catastrazo*", que se acordó por el equipo de gobierno y EH Bildu al definir el tipo del IBI para Getxo.

Ibon Rodriguezek berriz dio Eduardo Andradek gezurra esan duela, katastroari buruz osoko bilkurak ezin baitu ezer esan, eta erabakitakoa ondasun higiezinen gaineko zergaren tasa lauen artean zatitzea izan zela. Auzotar askoren eskualdatzeak zerga horren mende daudela onartu du, baina ematen den balioaren gehikuntza kargatzen du eskualdatzen denean. Zergek, halaber, aldarrikatzen duten aberastasunaren birbanaketa helburu bat dute ere, eta gai horretan ikusten dira askotariko ñabardura politikoak. Ciudadanosi esan dio tasak ez duela espekulazioa jaitsiko, eta beraien zuzenketen aurka egingo dutela, bidegabeak iruditzen baitzaizkio, ez gobernuko taldearekin akordio motaren bat dutelako.

Ibon Rodríguez insiste en que Eduardo Andrade miente ya que sobre el catastro nada puede decir el Pleno, lo que se acordó fue dividir entre cuatro el tipo existente del IBI. Reconoce que están sujetos a este impuesto las transmisiones de muchos vecinos, pero grava el incremento del valor que se da cuando se transmite. Los impuestos también tienen una finalidad de redistribución de riqueza que reivindican y en esta cuestión se ven los diferentes matices políticos. A Ciudadanos le manifiesta que el tipo no va a bajar la especulación y se opondrán a sus enmiendas porque le parecen injustas y no porque tengan ningún tipo de acuerdo con el equipo de gobierno.

Inazio Uriartek gogora ekarri du ondasun higiezinen gaineko zergan tasa % 80an murriztu zela katastroko oinarri berrietara egokitzeko. Kasu honetan, antzeko zerbait egiten da. Ciudadanosi esan dio bere proposamenak ordenantzan sartzen diren aldaketak aldatzea direla hobariak igoz bere zuzenketen ondorioei buruzko inolako azterketarik

